



2015eko Argia Egunean, Elortza Oñatin barna ibilbide historikoa gidatzen.

JERARDO ELORTZA EGAÑA

Jakintzak ez omen du lekurik okupatzen



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Jerardo Elortzak ez du ba gauza bera pentsatzen. *Zeruko Argiatik* ARGIA iza-tera pasa zenetik gaur arterako aldizkari guztiak ditu gordeta. Eta non sartzen dituen horiek denak? Etxeko zirrikitu guztiak bete zituenean garajea egin zien lekua, eta hura topera zeukala alabaren baserrian prestatu zuten txokoa astekariz betetako kaxak gordetzen joateko. Ez da, baina, jasota daukan pape-reko komunikabide bakarra: garai ba-teko *Punto y Horak* edo *Egin* zaharrak ere badauzkala aitortu digu. Eta hala dio berak barrez: “Kontrakorik esaten bada ere, jakintzak lekua okupatzen du, bai”. Motibo berezirik ez omen du, dena dela, egunkari eta aldizkari hauek guztiak gordetzeko. Motiborik ez dakit, baina edonork nahi lukeen artxiboa dauka.

Filologia alemaniarrean lizentziatua da Jerardo Elortza oñatiarra, eta urteak daramatza euskararen eta euskal kulturaren bueltan. ARGIAko harpideduna da *Zeruko Argiaren* azken fasetik, eta aste-kariaren ibilbidea gutxik bezala ezagutu du. Euskarako eta historiako klaseak

ematen zituen 1980ko hamarkadan, ARGIAk erabiltzen zituela hizkuntza be-zala euskal mundua lantzeko.

Etxean daukan altxorrarekin, ordea, azken berrogei urteetako ibilbidea idatzietan soilik ez, irudietan ere ikus daiteke. Portadak. Zer utzi digute urte hauetan zehar astekariaren azalek eta irudiek? ARGIAren lehen portada dator-kio burura Elortzari, Lemoizko zentral nuklearrarena; baita aurretik *Zeruko Argian* 1976an argitaratu ziren Anparo Arangoari torturatua izan ondoren ospitalean zegoela ateratako argazki historiko haiek ere. Baina argazki, irudi eta portada horiek ez digute soilik gure herriko historiaren norabidea bakarrik erakusten, baita hedabideak historia horretan egin duen ibilbidea ere; zein gairi egin zaion toki bat aldizkarian, zeri eman zaion portada...

Astekariko harpideduna baino gehiago da Jerardo Elortza, artxibistaz gain. ARGIA proiektuan parte-hartze aktiboa du. Ala ez zara oroitzen nork egin zuen 2015eko Oñatiko Argia Eguneako bisita gidatu historikoa? ■

“Espetxean egindako urte luzeetan erdarazko basamortu hutsean bizi nintzen eta ARGIA Euskal Herriarekin lotzen ninduen leiho argitsua izan zen, euskaraz”

Trantsizioak erakusketan jasotako aipua



ARGIA Gazte Danbada

Trantsizioak erakusketa ikusgai izan zen Laudion martxoaren 25etik 28ra. Horrez gain, ARGIAko kideek euskarari buruzko mahai-inguruan eta komunikazioari bu-ruzko hitzaldian hartu zuten parte.

Sarean arrantzatua



AGENDA

Gerra Europaren bihotzean dokumentalaren estreinaldia

- Ibai Trebiñok egin eta ARGIAk lagundutako dokumentala estreinatuko du egileak berak: Igorren, apirilaren 8an, 20:00etan Zinema aretoan.